


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2018-01-19 / 550. ZENBAKIA / 14. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

Biktimen arretarako bulegoa zabalik

Andoingo Udalak eta Oroituz, Andoainen elkarteak bulegoa zabalduko dute Bastero kulturgunean, datorren urtarrilaren 25etik aurrera / 8

Eguraldiaren iragarpena egiten aditu bilakatu diren Andoingo eta Urrietako txiolariek / 2

Olatz Odriozolak brontzezko domina eskuratu zuen Espainiako ziklokros txapelketan / 12



Bi urnietar tropelean

Iturria eta Alonso profesional mailan arituko dira aurtan / 10-11

Neguan ere errepidera atera beharra dago.

ANDONI URBISTONDO

ATE IREKIAK MATRIKULA ZABALIK

Matrikula zaitetz!

URTARRILAREN 29tik OTSAILAREN GRA

KRISTAU ESKOLA

salestarrak

<http://urnieta.presentaciondemaria.org>

943 551 782 **Ate Irekiak** URTARRILAK 27 - 11:00etan

www.salesianosurnieta.com

Ate Irekiak URTARRILAK 27 - 11:00etan 943 551 789

Eskualdeko meteo 'eroak'

Twitter bidez meteorologiaz informazio zehatz eta osatua ematen dute urte osoan Imanol Fernandez andoaindarrak eta Jonathan Lopez urnietarrak. Otsail gaiztoa espero du Fernandezek, ustekabez betetako negua Lopezek

Andoni Urbistondo URNIETA

Zenbatetan hitz egiten dugu eguraldiaz... Igoailuan, okindegian, tabernan... 'Hotza egiten du gaur', edo 'hego haize honekin nazkatua nago'. Elkarriketa asko abiatzeko gai nagusia da, zer esanik ez eguraldiak hizpidea eman eta albistegiak zabaltzen dituenen. Euskal Herrian sarri gertatzen da, klima berezia dugulako, eta negutik aparte bero boladak, haizeteak, uholdeak eta beste gerta daitezkeelako. Neguan nahikoa da Ernio edo Adarramendi zuritzea Beterrin eguraldia hizketagai nagusi izateko kale kantoietan.

Eguraldiaren gizarteratze horretan zeresan handia dute bailarako bi herritarrek: Imanol Fernandez andoaindarrak eta Jonathan Lopez urnietarrak. Bealaunaldi berekoak, 33 eta 32 urte hurrenez hurren, Leitzarain eskolan elkar ezagutu zuten aspaldi, 2002-2003an, eta orduan sortu zen harremana mantentzen dute egun ere. Ordurako isobara, tenperatura eta elurraren arra ondo sartua zuten biek, baina orduan zirena, eta egun direna, mundu bat dago tartean. Orduan afizio soil zena, lanbide edo betebeharrak bilakatu da biezat ia-ia. Hainbestera, euren egunerokotik meteorologia desagertuko balitz, aisialdia zertan erabili ez luketela jakingo.

Imanol Fernandez duela 20 urte pasa, 1997ko ekainaren 1ean zaletu zen meteorologiara, An-

doaingo Bazkardo auzoko uholdeekin. "Kuriostatea piztu zitzaidan, eta eguneroko tenperatura eta beste apuntatzen hasi nintzen eskolako koaderno zahar batean. Jakinmina sortu zitzaidan, zenbat euri litro jausten ziren. Ondo gogoan dut nire lehen termometroa Pryca zenean erosi nuela, Firestone markakoa uste dut, leihotik kanpora kable bat zeukana!". Pixkanaka hazi egin zen afizio hori, eta 2011n, Kale Nagusiko uholdeekin bat, "sare sozialen boom-a etorri zen". Horrek dena aldatu omen zuen: "Orduetik aurrera egunero argazki bat sarelatzen hasi nintzen, eguraldi aurreikuspenak...".

@meteoandoain kontuko kudeatzailea da Imanol. Eguneroko tenperatura baxuena eta altuena gordetzen hasi zen, eta ondoren, beti, iluntzeko 20:30koa, eta gauerdikoa. Honatx, arrazoia: "uste bat dut. Tarte horretan tenperatura jaisten den kopurua errepikatu egiten da gauerditik egunsentira arte, eta hori eginez, ba minimoa zein izan daitekeen oheratu aurretik aurreikus dezaket".

Jonathan Lopez txikitatik hasi zen lainoak, euria eta besteri

**@METEOANDOAIN
TWITTER KONTUKO
KUDEZATAILEA DA
IMANOL FERNANDEZ
ANDOAINDARRA**

begira. Gero isobarak eta beste etorri ziren, "baina jauzi kualitatiboa twitterren hasi nintzenez gertatu zen. Hor, hasten bazara, jarraipen bat ematera derrigor-tuta zaude, jarraitzaileak elikatu behar hori sentitzen duzu. Ez dut Imanolek adina gauza sarelatzen, baina inportantea izan litekeen edozein datu, edo argazki ikusten badut, sarelatu egiten dut". Goizero jaiki eta tenperatura edo zeruari begiratzen dio, nabarmentzeko moduko zerbait ba ote dagoen jakiteko. @urnietameteo da Jonathan-en kontua twitterren: "informatzea gustatzen zait. Urnietakoa izan, edo beste herri batekoa. Propaganda banatzen aritzen naiz lanean, Gipuzkoan barrena, eta lanean nagoen tokiko argazkiak sareratztea dut gustuko". Bide batez, lan eguna arintzen laguntzen dio eguraldiari erreparatzeak.

Bi hamarkadatan asko aldatu da teknologia. Orain jada dena elektronikoa da, merkuriozko termometro haiek historiak irentsi ditu: "Egun ez dut ezer apuntatzen, egungo aparailuek dena eurek bakarrik gorde eta artxibatzen dutelako: eguzki orduak, haizea, presioa, tenperatura..., Nire lana ematen didaten informazioa zabaltzea da, dena geratzen baita erregistratua", dio Imanolek.

**Eguraldia aldatu egin al da?
Eta eguraldia? Aldatu al da azken 20 urteetan? Zer pentsatzen**



Imanol Fernandez eta Jonathan Lopez eguraldi adituak. AIURRI

dute bi adituk? "Ez", Imanolek. "Ezta ere", Jonathanek. Baina ez dira erabateko ziurtasunarekin mintzatzen: "Bai eta ez", ñabardura, andoaindarrak. Azalpena, honatx: "Lehen igual aste osoa egoten zen euritan. Orain egun gutxiagotan botatzen du, baina botatzen duenean, litro gehiago botatzen ditu. Meteorologia muturrekoagoa egin dela esango nuke. Gurean, egun gutxitan hego haize eta tenperatura epela izatetik, elurra gertugertu ikustera pasa gaitezke, azaroko azken astean pasatakoa, adibidez". Azaroan egun hotzak

**@URNIETAMETEO
TWITTER KONTUKO
KUDEZATAILEA DA
JONATHAN LOPEZ
URNIETARRA**

ohikoak baino gehiago izan dira, "hiru gradutik behera dozena bat egun. Otsailean baino gehiago, eta otsaila izaten da, gurean, hilabeterik hotzena. Horrek ez du esan nahi eguraldia aldatu denik".

Jakina, biei ala biei asko gustatzen zaie Euskal Herriko klima: "Beti dago zer kontatu. Igual hiru egunetan beroa egiten du, eta gero sekulako erauntsia. Akaso hezezegia da. Ni Caceresen-eta egon izan naizenean, eguraldia jarraitzen-eta, asper-tu egiten naiz. Ez da aldatzen, beti berdina da", Fernandezek ahotan. Eskatzeko baimena emango baliote, garbi dute zer eskatuko luketen. Lopez: "'Elur gehiago egin dezala, azken aldian urri samar baikabiltza. Iraganeko neguak egin ditzala, eta udan, ba bero sana... Euriarekin kexu dira asko, badakit,



**Txotx
2018**

**SAGARDOTEGI GIROKO
EUSKAL KANTU LIBURUXKA**

Laster Aiurriren eskutik



baina horiek ura beharrezkoa dela ulertu behar dute".

Eguraldia aspergarria bilaka daitekeela diotenentzat, azalpen hau eman du Fernandezek: "Begara, Euskal Herria, eta Andoain bera oso txoko bereziak dira. Nire etxea La Salle ikastetxetik gora dago, 91 metrora, eta gertatu izan da nire etxe aurrean elurra loditu, eta Zumea auzoan, kilometro eskasera, ez zuritzea. Horrek monotonia hausten du, ezin baita ezer ziurtzat eman".

Garbi dute nongo negua ezagutu nahiko luketen gertutik: "Norvegia edo paraje horietako neguren bat, gustura", Imanolek. "Hotz handia egiten duen horietakoa", Jonathanek: "Siberia aldean edo, -60ko tenperatura bizi nahiko nuke egunen batean". Imanolek azkar bota du, eskerrak ez duela halakorik egiten Beterrin, "triskantza latza izango litzatekeelako. Hiruzpalau egunez -5 C azpitik egiten ditu eta hoditeria hausten da, istripu pilo bat gertatu... pentsa -60 C egingo balu!".

Twitter eta internet sarea

Biek euren zaletasuna partekatzeko erabiltzen dituzte sare

sozialak, twitter hain zuzen ere. "2011n hasi nintzen twitterren. Susmoa dut Euskalmet berak ere oraindik ez zuela konturik. Bakarretakoa nintzen eguraldiari buruzko txioak idazten zituena", Fernandezek arabera. 2014tik aurrera eraldakuntza handia izan omen da: "Jende asko bildu da eguraldiaz hitz egitera sarean". Interakzioa aberatsa da. "Aintzat hartu behar da twitterrek berdindu egiten dituela geografikoki oso urrun dauden eskualdeak. Andoainean 7-8 egunetan 200 litro jaso direla, eta Andaluziatik ea erotuta ote nagoen galdetzen didate, han igual urte erdia behar dutela halako kopuruak jasotzeko", dio Fernandezek. "Hain urrun joan gabe ere, Gipuzkoan bertan oso argazki ezberdinak eman daitezke aldi berean. Nik sareratu izan dut eguzkia edo lainoa Iru-

EURIA EDO ELURRA EGIN, EUREN TXOKO GUSTUKOENETIK INFORMATZERA JOANGO DIRA BIAK

nen edo Zumaian eta, aldiz, Urnietan egoera erabat ezberdina topatu".

Tenporetan federik ba ote dute? Imanolek ez. "Arrastoren bat eman diezazukete, baino ez dut fede handirik. Egun aurrerapen teknologiko handia dago". Bere aitak Cabañuelak deitzen dioten zerbait egiten omen zituen, Euskal Herriko tenporen antzekoa, urtarotako aurreikuspenak jakiteko egiten zena (abuztuko lehen 24 egunetako eguraldiari erreparatzen zaio. Egun bakoitzak hurrengo urteko hilabete bakoitzeko eguraldia adierazten du, goranzko eta beheranzko zentzuan). Jonathan: "ez dute oinarri zientifikorik, baina informazioa eman dezakete, eta informazioa ematen duten neurrian, aintzat hartzen ditut. Gauza ezin hobea da zientzia ez zehatza dela meteorologia, eta 3-4 egun baino harago joanez gero, modeloak, aurreikuspenak ikaragarri alda daitezkeela". Fernandezek hitzetan, "orain 180 egunera, edo hiru hilabete aurreikuspenak egiten dituzte... ez dakit zertarako, 3-4 egunetan asmatzen ez badute. Egun berean iparra eta hegoa izan

dezakegu, eta espero gabe. Pentsa...".

Meteociel eta Arome web gu- neak kontsultatzen ditu, batez ere, Fernandezek. Jonathan-ek hainbat web gune biltzen dituen Meteored. Aemet eta Euskalmet ere bai, baina Imanolek ez du oso gustuko Euskalmet: "ez dute asmatzen elur kotarekin". Jonathan ados dago: "Bai, zuhurrerriak dira". Meteociel frantziarra omen da fidagarriena. Pilatu daitekeen elur geruza ere iragartzen dute. Azken aldian asko erreparatzen diete toki jakinetan jarri dituzten estazioei. "Azkena Ernio puntan jarri dute, eta horrek sekulako informazioa ematen du. Ordu laurdenero berritzen dena, gainera".

Otsail gaiztoa eta ezustez beterikoa aurreikusten dute

Jakina, urtarril betean egonda, eta neguan sartu berritan, 2018ko lehen urtaroak zer ekarriko digun galdetu behar derrigor bi eguraldi zaleei, negu iragarleei. Eta noski, oraingoan ere ez dira ados jarri. Tebista kate ezberdinetako prebisioak ikusi ondoren, bakoitzak gauza ezberdina kontatzen duela pentsatzen duzuean bezalaxe? Ba antzera andoaindarra eta urnietarra. Mokokoa ia-ia. "Negu normala izan dezakegulakoan nago", Imanolek. "Eta nola dakizu hori?", Jonathanek. "Epe luzerako mapak eta begiratzen aritu nintzen orain gutxi, eta esango nuke urtarrila normala izango dela, lasaia, eta otsaila, aldiz, hotza. Batez besteko batzuk-eta egiten ditut, eta ondorio hori ateratu dut". Jonathanen ustez usteka-beak egongo dira, "depresio isolatu horietakoak, eta horrelakoekin erne ibili behar da. Elurte latzak ekar ditzakete". Ezin isilik geratu Imanol, eta puntua bota dio: "Nahiko nuke, baino ez dut uste. Otsaila etorriko da gaizto samarra".

Euria edo elurra egin, euren txoko gustukoenera joango dira. Imanol Leitzarango Unanibia zubira, euria bada, Leitzaran errekararen haserrearekin gozatzera. Elurra bada, herriko kanposantu aldera, eta haizea bada, "etxe azpian dagoen zuhaitzera. 108 kilometroko ufada bat neurtu dut bertan ez aspaldi". Jonathanek hiru elementu klimatiko horiekin toki berean gozatzeko ohitura du. Nola ez, Adarramendi kuttunean.



IMANOL FERNANDEZ
ANDOAIN

Andoaindarra da, eta 33 urte ditu. Meteorologian murgildu zen orain 20 urte, eta egun, ez du bere egunerokoa eguraldia gabe ikusten. @meteoandoain twitter kontuan informazio osatua ematen du. Eguraldiaz gain, egunerokoari jarraipena ematen dion txiolaria da.

2017ko tenperaturen atzera begiratuan, zera txiokatu zuen:

- Urtarrilean 18 egun 0°C azpitik.
- Otsailaren 13an 108 Km/h-ko haizeteak.
- Martxoaren 10en lurrikara nabaritu zen.
- Abenduaren 3an elurra ikusi genuen.



JONATHAN LOPEZ
URNIETA

Urnietarra da, 32 urte. Propaganda banatzen aritzen da, baina bere lana zaletasuna bihurtu du, hango eta hemengo argazkiak erakusteko. @urnietameteko kontuan ematen du bere jardueraren berri. Lasterkaria bada ere, eta lasterketan edota prestaketa saioei buruzko argazki albisteak partekatzea gogoko du.

2017ko tenperaturen atzera begiratuan, zera txiokatu zuen:

- Urteko tenperatura baxuena: -3,7°C urtarrilaren 7an.
- Urteko tenperatura altuena: 37,9°C ekainaren 19an.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

XABIER LASA BERGARA OROITUZ, ANDOAINEN EKIMENEN KIDEA

Merezi du

Frankismoak 1936-1977ko epean eragin zituen biktimen inguruko edozein informazioa edukiz gero, Basterora hurbiltzeko gonbitea luzatu nahi dizut, irakurle, Oroituz, Andoainen elkartearen izenean. Akaso, zurekin ez doala pentsa dezakezu; garaiak eta gaiak ez duela zure interesik pizten. Hausnartzen jartzea nahikoa izan daiteke, ordea, ahalegin txikiak ere merezi duela ohartzeko. Izan testigantza pertsonala –zurea edo senideren batena–, izan agiri edo argazkiren bat..., uste baino baliagarriagoa izan daiteke. Urruneko gertakizun historikoetan oinarritutako nobeletara jo ohi dugu maiz. Eta ez gara ohartzen, urrutira gabe, geure etxean eta geure familiaren sustraietan bertan aurki ditzakegula gertaerarik hunkigarrienak. Ezin errealagoak.

Andoaingo herriaren eta andoaindarren memoria historikoa pertsonala eta kolektiboa da. Hurbilekoa, ezinbestean. Ezkutatu nahi izan zena, urte askotan. Berreskuratu nahi dena, beranduegi izan aurretik. Premiazkoa delako. Geure aurreko belaunaldiek merezi dute justizia, duintasuna eta aitormena. Geuk ere merezi dugu, baldin eta bizikidetzan oinarritutako gizarte bateko partaide izan nahi badugu.

Merezi du frankismora hurbiltzeak, besterik ez bada ere irakaspenak ematen dizkigulako. Bizi dugun errealitateak iraganean ditu sustraiak. Esaterako, ba al zenekien Francoren ministro izandako askok –giza eskubideen urraketetan erantzukizun zuzena izan zutenak– Endesa, Caixa, Telefonica edo Iberdrolako administrazio kontseiluetan tokia hartu zutela?

MEMORIA HISTORIKOA PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA DA. EZKUTATU NAHI IZAN ZENA, URTE ASKOTAN

Eta beste askok, Franco hil ostean, demokrazia garaian politika egiten eta agintzen jarraitu zutela? Ba al zenekien 40 urtez errugabeen urtetako kartzela zigorrak eta heriotza zigorrak ezartzeaz arduratu ziren Orden Publikoko Epaitegiko (TOP) 16 epaileetatik 10 demokrazia

garaian Epaitegi Goreneko edo Audientzia Nazionaleko epaile izan zirela?

Bulegoaren bidez bultzada txikia eman nahi zaio *Argentinako kereilari* ere. Tresna bat da, Estatu espainiarrean baztertuta izan diren biktimen eskubideen alde egiteko, giza eskubideen bortxaketen memoria jasotzeko eta 1978tik datorren eliteak frankismoari eskaintzen dion inpunitatea salatzen.

GUTUNA

Eskertza

LASTERKA ITZULI ANDOAIN

Kaixo lagun:

Urteari amaiera emateko, eta herriko kirol ekimen faltari aukera berria eman nahian, Lasterka Itzuliren inguruan lagun taldea bildu genuen. Gure helburua herria girotzea izan da, modu positibo eta alaiaren bitartez. Jende anitzaren parte-hartzearekin, hasiera-hasierako asmoa lasterketa herrikoia sortzea izan zen.

Dagoeneko hiru urte igaro dira lasterketa antolatzen hasi ginenetik, Andoaingo Udalaren laguntzarekin. Lehena “Andoaindarrak 400” ekimenaren baitan izan zen.

Aurten akatsa burutu genuela aitortu behar dugu, ur hornidurari dagokiona. Eta jakin ezazula, datorren urteari begira, neurriak hartuko



ditugu akatsa errepika ez dadin.

Urte urte jende ugari parte-hartzen ari dela ikusten ari gara, horietako asko moztortuta eta beste batzuk patinen gainean. Den-denak giro ezin hobean. Jakitun gara andoaindar askorentzat urte zaharreko lasterketa egutegian gorritz markatutako ekimena

bihurtzen ari dela. Poztekoa da hori.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu lasterketa posible egiten duten parte-hartzaile, laguntzaile, ikusle eta herritar orori, bereziki, komertzio eta babesleei. Eskerrik asko, eta datorren urtean berriro elkar ikusiko dugulakoan agurtzen gara.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 alea.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
ALJATUAK: ALJATUAK, nesteez, TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
ANDOAINGO UDALA, Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:
EUSKO JAIERAREN GOBERNO VASCO, Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIA: ZIURTAGIA, BABESLEAK: BABESLEAK

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

PROTAGONISTA

“Iruñerako bidaiian sagardoa ez da oso urruti ibiliko”

URKO ARANA GAZTAZALEAK JON GAZTAÑAGA PEÑAKO SUSTATZAILLETAKOAK

Erredakzioa ANDOAIN

Espainiako “La Liga 1, 2, 3” Bigarren mailako Nastic taldean ari da Jon Gaztañaga Andoaingo futbolari profesionala. Tarragona aldean dabil, Katalunian. Urrun samar hari babesa agertzeko. Izan ere, Realarekin debuta egin zuenetik Buruntza auzuneko jokalaria atzetik segika ditu Andoaingo hainbat lagun. Horietako bat, gertuenetakoa, Urko Arana da. Gaztazaleak taldearekin Sadarrera hurbilduko, ostegun honetan. Bi talde futbol zelaian, eta andoaindarrentzat protagonista nagusia: Jon herrikidea, Jon adiskidea. **Iruñea aldera zoazte. Oraingoan bai, ezta?**

Horixe espero dugu. Abenduaren lehenean 17. jardunaldia irekitzen zuten partida Osasuna eta Nasticen aurkakoa izan zen. Elurte egoeratik, Urpakoekin hitz egin eta gero, Iruñeara joatekoak ginen 40 lagunak



Urko Arana ezkerrean, duela hiru urteko bidaiian antolatutako argazkian. GAZTAZALEAK

etxean geratu ginen. Eta eskerrak, partida bertan behera geratu zelako! **Zuen adiskidea jokatzeko aukera paregabea.** Halaxe da, minutu guztiak jokatzeko ari da eta. Bigarren

mailan ari da, Katalunia aldean. Soriakoa eta Iruñekoa dira jokoan ikusteko gertuen dauden futbol zelaiak. Oraingoan, astean zehar izanik, ez gara beharbada hainbeste izango baina

hogeita hamar lagun inguru animatzeko prest izango gara. **Zer dio Jonek horrelako irteeren aurrean?**

Ez da asko hitz egiten duen horietakoa, baina ilusio handia egiten dio. Realean zegoenean haren alde egitea erraza da, eta orain Bigarren mailan hari segika taldetxoa izatea izugarritzko indarra ematen dio.

Gertukoa izanik, nola deskribatuko zenuke Jon?

Oso umila da. Gauzak gaizki doazenean konfiantza handia erakusten du bere buruarengan. Aldiz, gauzak ondo doazenean, hankak lurrean izaten ditu. Lehen mailan edo Bigarren mailan oso mutil ona da, lagun oso laguna.

Partida eta gero Jon agurtzeko aukera izango dugu. Ohiko duenez, partidaren erabili duen kamiseta bisitan joan gatzazkionen artean zozketatuko dugu.

Jonen etxeok ezagututa, zuen ekitaldian gertu izango duzue sagardoa...

Sagardoa ez da urruti ibiliko, ez. Horrexegatik goaz busean. Sagardoa izango da, urdaiazpikoa ere bai. Jonen etxeok oso harreman estua dugu. Haren gurasoak, anaia eta osaba gurekin primeran portatu dira beti.

HAU ERE BADUGU!

Merkatariak Instagram sare sozialean



Eskuko telefonoen garapenarekin, harremanak sustatzeko moduak aldatu egin dira. Sare sozialak askotarikoak dira, eta dagoeneko, webgunearen aurretik lehenesten dira. Erraza eta praktikoa baita, eskuko telefonoarekin eta ideia bakarrarekin aski baita. Tokiko merkatarien kasua da hori. Geroz eta gehiago dira Instagram edota Facebook bidez euren negozioaren berri ematen ari direnak. Instagramen, kasuak aipatzen hasita, aktibo samar dabilta Anita goxotegia, Xare oinetakoak, Ciclos Patxi, Olajauna taberna eta beste hainbat.

Martiarenaren heriotza Facebook sarean



Iñaki Martiarena andoaindarren heriotzaren albisteak Facebook sare sozialean soka luzea ekarri du. Hein handi batean, Aiurri astekarian argitaratutako albistearen herritarren parte hartzearekin osatu egin dela esan daiteke. Albistearen eta argazkiaren alboan hainbat herritarrek dolumin mezuak idatzi zituzten. Iruzkinetan 'Doluminak', 'Goian bego', 'Pertsona ona izan zen', 'Agur Iñaki' mezuak irakur zitezkeen. Ika-mika edo kalakarako maiz erabiltzen bada ere, tarteka mezu politik jasotzeko eraginkorra da. Hizkuntzaren langa gainditzen da, gainera. Euskaraz irakurri baitute, eta euskarazko horri iruzkina idatzi. Nahiz eta erdaraz izan.

ITURRI ONETIK

Urnietar taldea bizikidetza sustatzen

Urnietan bakea eta bizikidetza sustatzeko bidea urratzen ari dira, Gipuzkoako herri askoren aurretik agertuz. Ekitaldi irekiez gain, badira gutxienez bi foro ezberdin lanean dabilzanak. Bata, ordezkari politikoena da. Bestea, herritarrena. Azken hauek memoriari buruzko hausnarketa egin dute, bakoitza bere ikuspegitik abiatuta. Denbora tarte honetan sentsibilitate ezberdineko zazpi kide bileretan aritu dira. Kide berriak biltzeko deialdia luzatuko dute, laster.

GORA ETA BEHERA



Gehienek festa, gutxi batzuk lan

Inor gutxi dago lanean, abenduaren 31n. Andoain, ordu txikietan, jai giroan sartzen ari ziren urte berrian. Ezustekoak izaten dira horrelakoetan. Argazkiko sorosleek eta udaltzainek lurrean topaturiko pertsona artatzen lanak izan zituzten. Ez zuela ospitalera joan nahi, errepikatzen zuten. Kostata, lurretik ohatilera eta ohatiletik anbulantziara eramane zuten.





Eneko Zulaika, Josune Mayor, David Rosco eta Olatz Urretabizkaia (ezker-eskuin). AIURRI

Bidaiak ardatz dituen lehiaketa berria martxan

Lehen aldiz, diaporama lehiaketa antolatu du Udalak. Norberak egindako bidaien berri eman behar da, irudiak eta ahotsa tartekatuta. Sari potoloak lortzeko aukera dago, otsailaren 9ra bitarte. Informazioa urnieta.eus webgunean eskuragarri dago

Olatz Lasa URNIETA

Buruntzaldeako gazteei zuzendutako bidaien diaporama lehiaketa jarri du abian Urnietako Udalak. Lehiaketaren aurkezpen ekitaldia hilaren hamabian egin zen Gazte Informazio Puntuan, eta bertan izan ziren David Rosco Sustapen eta Garapen pertsonaleko zinegotzia, Josune Mayor Sustapeneko arduraduna, Olatz Urretabizkaia Gazte Informazio Puntuko teknikaria eta Eneko Zulaika Gazte Informazio Puntuko teknikaria praktiketan.

Norberak egindako bidaiak 30-60 minutuan azaltzean datza lehiaketak, horretarako irudiez baliaturik. Honakoaz mintzatu daiteke bideoan: nolako esperientzia izan den bidaiak, nola antolatu den, zergatik hautatu den leku hori eta zer ikusi eta ikasi den.

Parte hartzeko oinarriak bi dira. Batetik, 16 urte edo gehiago izatea; eta bestetik, Buruntzaldean bizi, ikasi edota lan

egitea. Izena emateko orriaren bila joan behar da Lekaiora, Gazte Informazio Puntura.

Sariak

Aurkezten direnen artean bost pertsona hautatuko dira. Eurek egindako diaporama aurkezteko aukeraz izateaz gain, ehun euroko saria eskuratuko dute. Bestalde, bost hautatu horien

artean banatuko dituzte Kultur-nieta saria eta ikuslearen sariak, 300 eta 200 eurokoak, hurrenez hurren.

Epaimahai batek irabazlea aukeratuko du. Eta ikuslearen saria, berriz, ikusleek emango dute. Diaporama bakoitzera joaten diren ikusleei lanaren inguruko puntuazioa emateko eskatuko baitzaie.

Izen-ematea eta proiektzioak

Astelehenean, urtarrilak 15, ireki zen izena emateko epea, eta otsailaren 9an amaituko da. Izena emateko orria Lekaiora, Gazte Informazio Puntuan eta webgunean daude eskuragarri. Betetakoan modu ezberdinetan entregatu daiteke:

- Lekaiora, Gazte Informazio Puntuan eta webgunean.
- Whatsapp zenbakian: 650 250 356.
- Helbide elektronikoa: gazteinformazioa@urnieta.eus

Martxoaren 19-23ko astean izango dira diaporamen aurkezpenak. Eguna hurbiltzen doan heinean Udalak zehaztuko du zein egun, ordu eta lekutan izango den aurkezpen bakoitza.

Adostasunik ez dago Urnietako tren pasabidearen inguruan

Udala kezkatu agertu da Adif-ek lurrazpiko pasabidea eraikitzeko aurkeztutako proiektuarekin



Segurado zinegotzia, Aiz Sailburu-ordea eta Pagola alkatea. URNIETAKO UDALA.

Erredakzioa URNIETA

Adif-ek egun dagoen trenbidearen gaineko pasagunea kentzea proposatu du, geltokiko bi nasen arteko lurrazpiko pasabidea eta igogailua eraikiz. Udala ados dago horrekin, geltokirako irisgarritasuna eta segurtasuna hobetuko lirakeelako. baina puntu batean desadostasuna agertu da. Izan ere, Adif-en egitasmoan lurrazpiko pasabidea treneko erabiltzaileentzat soilik izango litzateke. Hori horrela, alde batetik bestera igarotzen diren hainbat herritarren pasa-

bidea kaltetuko litzateke. Udalak adierazitakoaren arabera, "Adif-en planteamenduak ez du errespetatzen Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean adostutakoa. Plan horretan, lurrazpiko pasabideak erabilera publikoa izango duela zehaztu zen, eta Adifek ez zuen alegaziorik jarri".

Egoera horren aurrean, Mardilgo Adif-i bilera eskaera luzatu dio Udalak. Ez dute oraingoz erantzunik jaso. Udal arduradunek adostasun batera helteko lanean jarraituko dutela adierazi dute.

Otsailaren 10ean ospatuko da inauteria Urnietan

Film edota antzerkietako musikalak tartea berezia eskaintzea erabaki dute aurtengo inauterietan. Horixe aurreratu du Udalak, ohar bidez: "Azaroaren 18an bildu zen Jai Batzordea, aurtengo inauterien gai nagusia musikalak izango zirela proposatzeko". Proposamenak talde eta koadrila modura elkarrekin mozorrotzeko aukera ugari eskaintzen ditu. Aurten, inauterietako ospakizun nagusia otsailaren 10ean izango da. Hots, larunbatarekin.

Bosko Anitz, Buruntzantzian eta beste hainbat talde eta koadrilei esker, mozorro festa indartzen ari da Urnietan.

Arkitekto teknikoan lan-poltsa osatzeko deialdia

Urnietako Udalak Arkitekto teknikoan lan-poltsa bat sortzeko aukeraketa prozesua martxan jarri duela iragarri du, "etorkizunean sor daitezkeen beharrei erantzun ahal izateko".

Izena emateko epea urtarrilaren 12an ireki zen eta datorren otsailaren 8ra bitarte zabalik izango da. Udalaren urnieta.eus webgunean iragarki taulan izena emateko orria eta oinarriak eskuragarri daude. Baita urtarrilaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere.

Bertan bulegoan aurkez daitezke proposamenak. Ordutegia, astelehene ostiralera, 07:30etik 14:30era da.

125.000 euro parte hartze prozesu berrirako

Proposamenak bidaltzeko epea asteazkenean ireki zuten, datorren otsailaren 11ra bitarte. Udal teknikariek, proposamenak teknikoki eta ekonomikoki aztertu ondoren zein proiektu lehenetsi diren jakitera emango dute

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak parte hartze prozesua jarri du martxan, 2018ko Udal aurrekontuetako 125.000 euro zertan gastatu herritarrek erabaki dezaten. Iaz baino 25.000 euro gehiago bideratu dira aurtengoan. Ibatuz enpresa izango da parte hartze prozesua bideratuko duena.

Proiektuen baldintzak

Proposamenek onartuak izateko sei baldintza bete behar dituzte:

- 16 urte edo gehiagoko herritarren proiektuak izatea.
- Udal-eskumenekoak izatea, beti ere, obrak, hirigintza eta mantentze lanei lotuak.



Mikel Pagola alkatea eta Jorge Segurado zinegotzia (ezker-eskuin). AIURRI.

- Ekonomia edo/eta teknika aldetik bideragarriak izatea. 25.000 euroko kostua ez gainditzea.
- Iraunkortasun ekonomiko eta finantzarioa bermatzen dituztenak.
- Urnietan bizi diren herritar guztien interesa norberaren interesaren gainetik jartzen dutenak.
- Udalerriko auzoen arteko oreka bermatzen dutenak izatea.

Proposamenak helarazi

Lau modutan helarazi daitezke proposamenak: herriko puntu desberdinetan ipini diren kutxa eta buzoietan (Lekaio, Kiroldegia, Denda Berri, Anbulatorioa, Egape ikastola, Azkorte, Presentación de Maria eta Salesiar ikastetxea); Udalaren webgunean edota Urnieta APPn.

Aurkeztutako proiektuak

2018rako hainbat proiektu daude aurreikusita, hala nola, irisgarritasuna Azkorte kalean; Langardako argiteria LED sistemara pasa; Idiazabal kaleko mugikortasuna; Plazido Muxika plazako irisgarritasuna hobetzea;

Sarobeko aire egokitua berritzea; Txoritagainen aparkalekua jartzeta eta parkea eraberritzea eta Ergoien industrialdeko saneamendua konpontzea.


Udal teknikariek proposamen guztiak aztertu ondoren, guztia berri emateko aurkezpen publikoa egingo dute.

Iaz herritarren erantzuna oso ona izan dela adierazi du Mikel Pagola alkatea, eta aurtengoan ere jendeak parte hartzera gonbidatzen ditu, haien beharrak ezagutzeko modu bezala.

Informazio karpak

Herritarren zalantzak argitzeko informazio karpak jarriko dira herrian, otsailaren 2 eta 3an:

- Otsailak 2: 10:00-14:30
Etxeberri plaza / 17:00-20:00
Guria taberna.
- Otsailak 3: 10:00-14:30
Kiroldegi kanpoaldean.



Andoaino eta Urnietako Aiurri astekari berria



Bidaieen diaporama lehiaketa 2018

Egunean eguneko albisteak sarean

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



Joan zen ostiralean zabaldu zuen erakusteka, Basteron. AIURRI

Emozioa margolan bakoitzaren atzean

Naiara Delgado Perez Andoaingo margolariaren artelanak ikusgai daude Basteron. Barru-barrutik irteten zaizkion emozioek inspirazio iturri izan duela aitortu zuen, erakusketaren irekiera ekitaldian. Otsailaren 17ra bitarte zabalik dago

Xabier Lasa ANDOAIN

Lau urte zituela Delgadok argi eduki zuen sormenaren mundutik abiatu beharra zeukala, eta zaletasun hori Eduardo Arresegorren tailerrera joanda bideratu zuen: "Denetik egiten genuen tailerrean. Marrazketa, eskultura, argazkigintza..., eta hartaz geroztik ez naiz geldirik egon. 16 urterekin Andoain utzi eta Iruñeara joan nintzen, batxillergo artistikoa ikastera. Bilbo izan zen nire hurrengo bizitokia, Arte Ederretako ikasketek erakarrita". Basteron zabaldu duen "Nire terapia=arte" erakusketan bere ibilbide artistikoari errepasso polita emateko aukera eskaintzen da. Bederatzi urterekin egin zuen lehen marrazkia ikusgai ipini du, eta baita berriena ere, 36 urterekin egin duena.

Joan zen ostiraleko irekiera ekitaldian adierazi zuenez, sormena bizitzako pasioa du. Urduri jar liteke egun batzuk ezer sortu gabe egonez gero. .

Emozioen baitako artelanak

Sormen lanari ekiteko orduan, barruan mugitzen zaizkion emozio eta sentimenduek gidatuta egiten duela adierazi zuen: "Nire artelanetan antzematen da zein izan zen nire egoera animikoa lanean jarri nintzen une bakoitzean. Txuribeltzekoak iluntasunaren eta tristeziaren seinale dira; kolo-

retsua aldiz alaitasuna adierazten dute". Teknikaren arabera, ia ehun artelan ikus daitezke.

Erakusketaren ordutegia

Otsailaren 17ra bitarte zabalik izango da, astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 10:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:30era.

Erakusketa jaioterrian bertan

Delgadok bere lana erakusteko gogo bizia zuen, eta amets hori jaioterrian gauzatzea egokitu zaio: "Egundoko ilusioa egiten dit jaioterrian gertatzea, eta gainera, izugarri gustatzen zaidan erakusketa gelan". Bizimodua ez du artelanetatik ateratzen, baina enkarguak onartzen ditu, erretratu pertsonalak direla, edota zuhaitz genealogikoak... nairadelgado.blogspot.com webgunean bere artelanez eta hausnarketez goza daiteke.

Aukera izaten duenean, mural handiak egitera ausartzen da Delgado. Egunotan, Lizartzako Herri Eskolako horma bat margotzen dabil, buru belarri. Euskara du ardatz Lizartzako muralak, eta tamainan, hamar metroko luzera eta seiko zabalera izango du.

Memoria eta erreparazioa aztergai Basteroko hitzaldian

Laura Pego eta Gemma Varona adituek hitzaldia eskaini zuten, Udaleko bizikidetzaz mahaiak antolatuta



Gemma Varona eta Laura Pego hizlariak, joan zen asteartean Basteron. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo bizikidetzarako udal taldeak 'Memoria eraikitzen' zikloaren bigarren saioa antolatu zuen Bastero kulturgunean, joan zen asteartean. "Nola egin aurrera memorian eta erreparazioan?" galderari erantzuteko, bi aditu aritu ziren solasean: Laura Pego Otero eta Gema Varona Martínez zuzenbidean doktoreak. Aurkezpen eta gidaritzat lanak Inesa Arztimuño Baketik fundazioko kideak egin zituen.

Varonak biktimak ardatz izan zituen bere mintzaldian. Bikti-

ma nor den, nor izan daitekeen, zein eskubide dagozkion eta biktimekin egindako inkestentzat datuak eskaini zituen.

Pegok, bestalde, Etxeberriarekin batera Eusko Jaurlaritzarentzat tortura eta tratatu txarrei buruzko txostenaren berri eman zuen. Horko hainbat datu interesgarri eskaini zituen.

Bi hitzaldietan ez da jende asko hurbildu, baina hurbildutakoen joera parte hartzailea izan da. Bietan ere hizlariak hainbat galdera luzatu zitzaizkizkien.

Bideo laburren lehiaketan izena emateko epea zabalik

Bideo laburren lehiaketa antolatu du Andoaingo Udalak, ES-CIVI zinema eta bideo eskolarekin batera. 16 urte edo gehiago duen, profesionala ez den eta Andoain bizi, ikasi edo lan egiten duen edozeinek parte har dezake bideo laburren lehiaketan. Gehienez ere 15 minutuko iraupena izango du. Edozein generotakoa izan daiteke: filma, publizitate spot, elkarrizketa, bideoklipa, animazioa... Bideoak hizkuntz edukiren bat izatekotan (ahotsa, musika, elementu grafikoak...), honek euskarazkoa behar du izan. Informazio gehiago: euskarazerbitzua@andoain.eus | 943 300 831.

Inauterietako maskara lehiaketa martxan dago

Inauterien iritsierarekin batera, Sormen plastika tailer elkarteak eta Andoaingo Udalak haur eta gazteei zuzendutako maskara lehiaketa antolatu ohi dute. Lehiaketa, adinaren arabera, hiru mailatan bereiztuta dago: 8-9 urte, 10-11 urte eta 12-14 urte. Saridunek opari bana jasoko dute. Lanak Bastero kulturgunean aurkeztu behar dira datoreen otsailaren 6a baino lehen. Sari banaketa ekitaldia otsailaren 8an izango da, Urigainen. Hots, ostegun gizenean. Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak ikusgai izango dira otsailaren 8tik 12ra. Maskara egiteko irizpiderik ez dago. Gaia librea da.



Biktimen arretarako bulegoa zabalik izango da Basteron, ostegun arratsaldean eta ostiral goizean. AIURRI

Biktimen bulegoa zabalik

Urtarrilaren 25etik aurrera Oroituz, Andoainen elkarteak Frankismoko biktimen arretarako bulegoa zabalduko du, Basteron. Andoingo Udalarekin batera sustatu duten ekimenarekin, bizilagunek jasandako giza eskubideen urraketak bilduko dituzte

Erredakzioa ANDOAIN

Desagerketak, atxiloketak, kartzela zigorrak, jazarpenak, lan diskriminazioak, langile batailoak, exilioa, ile mozketak... eta beste makina bat biolentzia mota jasan zituzten pertsonen lotutako informazioa –testigantza pertsonalak, agiriak, argazkiak...– bildu nahi dute, eta aldi berean, gaiari loturiko edozein kontsulta egin ahal izango da bertan.

1936-1977 epealdian Andoainen bizi ziren pertsonen inguruko lekukotzak eta gertakizunak jaso nahi dituzte. Baina baita urte haietan estatu espainiarreko beste edozein tokitan bizi izan zirenean ere; Adibidez, 2018an Andoainen bizi den herritar bat ager daiteke bulegora, senitartekoren batek 1940ko edo 1960ko hamarkadatan Extremadura aldean jasandako biolentzia

kasuen berri emateko. Bulegoa Oroituz, Andoainen elkarteak kudeatuko du. Ezaguna denez, herriko elkarteak Frankismoko biktimen errealitatea ikertzea eta horien eskubideak defendatzea helburu du.

Bulegoaren zereginak

Bi zeregin betetzeko irekiko dute Bulegoa. Batetik, Andoaingo herriaren eta andoaindarren oroimen pertsonal eta kolektiboan sakontzeko. Justiziaren printzipioarekin zerikusia dau-

ka bigarren helburuak. Egun, Espainian, frankismoko krimenek gozaten duten inpunitatearen aurrean Argentinan 2013an abian jarri zen kereilara batu nahi dira Andoaingo herrian bildutako bortxaketa kasuak.

Egitasmo honekin Andoaingo Udalak iazko uztaileko udalbatzan aho batez onetsi zuen mozioari bidea ematen dio. Izan ere, mozio hartan Udalak Argentinako kereilaran akusazio gisa aurkeztea erabaki zuen.

Aurkezpen ekitaldia

Arretarako bulegoa asteazkenean aurkeztu zuten udaletxean. Alderdi guztietako ordezkariekin batera, ekitaldian uztailean mozioa aurkeztu zuten Argentinako Kereilaren aldeko plataformako ordezkari Josu Ibargutxi eta Oroituz, Andoainen elkarteko Xabier Lasa izan ziren.

Bulegoaz arduratuko den Lasak, Andoaingo alderdiei eta plataformari esker ona adierazi zien: "Poztekoa da Andoaingo udala osatzen duten alderdi guztiek Argentinako kereilarekin bat egitea. Andoaingo herriaren eta herritarren memoria pertsonal eta kolektiboaz ari gara, egia jakiteaz eta justizia eskatzeaz ari gara, eta eskertze-koa da bide horretan instituzioek, herriko elkarteek eta biktimek bat egitea. Aldi berean, eskertze-koa da ere kereilaren aldeko Euskal Herriko plataforma egiten ari den lana. Babes juridikoa, teknikoa eta animikoa eskaini digu".

Azkenik, bulegora gerturatze-ko gomendioa luzatu zien Andoaingo herritarrei: "Oroituzetik urteak daramagu biktimen testigantzak eta gertakizunak jasotzen, baina oraindik asko dago egiteko. Etxe eta familietan gordetzen diren istorio txiki baina sakon horiek, guztiak dira elkarren osagarri, eta guztiak batuz memoria justu bat osatzen joan gaitezke. Horrekin guztia-ekin zapaldu eta ahaztuarazi nahi izan den egia historikoa azaleratzen lagundu gaitzake".

Aurkezpen ekitaldira Argentinako kereilaren aldeko Euskal Herriko plataformako Josu Ibargutxi hurbildu zen. Udala ordezkarietara adierazteaz gain, beste udalerriekin batera kereilarekin aurrera egiten jarraitzeko deia luzatu zuen.

Arreta bulegoa Basteron

1936-1977 epealdian giza eskubideen urraketa pairatu zuten andoaindar guztiei zabalik dago arreta bulegoa. Gerta daiteke adineko pertsona bat garai hartan Espainiako edozein komunitateetan bizitzea. Esaterako, Extremaduran. Gaur egun Andoainen bizi bada, nahikoa izan daiteke arreta bulegora gerturatu eta bere lekukotza jasotzeko. Andoainen edo Andoaindik kanpo gertatu izan bada ere, kasu guztiei arreta berdina eskainiko zaiela adostu da.

Datorren urtarrilaren 25etik aurrera Bastero kulturguneko bilera gelan zabalik izango da 'Frankismo garaiko biktimen arretarako bulegoa'. Musika eskolako sarbidea hartuta, bulegoa lehen solairuan dago. Honakoa izango da egutegia:

- Urtarrila: 25 eta 26.
 - Otsaila: 1 eta 2, 8 eta 9, 15 eta 16, 22 eta 23.
 - Martxo: 1 eta 2.
- Orduetgia, berri:
- Ostegun arratsaldean (17:00-19:30).
 - Ostiral goizetan (10:30-13:00).

Herritarrek edozein motatako informazioa eskaintzeko aukera edukiko dute bertan. Bereiziki, testigantza pertsonalak, agiriak, argazkiak... Era berean, hurbiltzen diren era guztietako kontsultak egin ahal izango dituzte biktimen gaiaren inguruan.

Andoaingo Udalak interesa dauka XX. mendeko epealdi horretan herritarrek jasan zituzten giza eskubideen bortxaketei buruzko egia jakiteko: "Justizia, erreparazioa eta ez errepikatze bermeak ezartzeko bide bakarra dela sinetsita dagoelako".

Andoaingo Udalaren babesa

Ana Carrere Andoaingo alkateak iazko uztailean 20an udalbatzarrak aho batez onartutako mozioa garrantzitsutzat hartu zuen, estatu mailako hainbat udalerrik abiatutako mugimenduarekin bat egiten duelako: "Frankismoak ondorio lazarriak izan ditu gure bitzitzako esparru guztietan. Oraingo honetan, geure buruari Andoainen eragindako giza eskubideen urraketa guztiak jasotzeko helburua jarri diogu. Batzuk ezagunak zaizkigu, beste batzuk entzun ditugu, baina oraingoan, hauek denak txosten berean jasotzeko ardura hartu dugu. Txosten honekin Frankismoaren zigorgabetasuna salatu nahi dugu batetik, eta bestetik, memorian eta erreparazioan urratsak egin nahi ditugu; ez errepikatze berme nagusi bezala".

Andoni Urbistondo URNIETA

Mikel Iturria eta Mikel Alonso afari-elkarrizketa batera gonbidatzeak pazientzia dosi handia eskatzen du. Iturria, zaharragoa, adar jotzaile peto bilakatzen da Alonso gaztearekin, bere nagusitasun fisiko eta ibilbide profesionala babes. Baina Alonso ez da berehalakoan makurrazten. Jendetasuna du hizkeran, eta oilaru egiten zaio Iturriari. Apustu pare bat ere egin dituzte euren artean, harroren nor den jakin asmoz. Hasierako sua itzalita, errespetua diote elkarri. Alonsok badaki Iturriaren aholkuak lagungarri izango zaizkiola, eta Iturriak, maisu, gustura azaltzen dio gazteari, zer eta nola egin behar duen.

Euskal Herrian egun jende gutxi daukan pribilegioa izan zuen Mikel Alonsok (21 urte): "Mikel Landa berak deitu zidan, urrian, ea 2018rako ze asmo nuen jakiteko. Fundazioko proiektuan parte hartzeko nirekin kontatzen zuela esan zidan, eta ez nuen bitan pentsatu. Baiezkoa eman nion". Alonsok ez zeukan Landaren zenbakia (Fundazioko kudeatzaile berria), eta Murgia-koaren ahotsa entzun zuenean "sekulako sustoa hartu nuen... Mikel Landa bestaldean! Damutu baino lehen beraiekin jarraituko nuela esan nion".

Tropel profesionalako kide da, dagoeneko. Oso gazte, bai, eta hirugarren mailan, Fundazioarekin, baina profesionala. Bedeinkapena izan da Fundazioaren jauzia: "Fundazioa atera izan ez balitz, zer? Ba afizionatietan jarraitu beste urtebete, edo bi, 23 urtez azpikoetan, aukera on bat etorri arte, eskaintza askorik ez baineukan".

Afizionatuetatik profesionala-tara, zer espero du? "Itxaropen-tsu nago. Lan gehiago egin behar dela ziurra da, baina ari naiz. Azaroa hasieran hasi nintzen, serieak-eta egiten dagoeneko, Mallorcara begira (urtarrila bukaeran jokatuko da proba hori)". Bitarteko gehiago dituzte, ezer faltan ez, baina kategoria ezezaguna da berarentzat oraindik. "Martxa hartzen joateko esan dit Jorge Azanza kirol zuzendariak, nire tokia non dagoen aztertzen joatea, taldearentzat baliagarri izatea nire laguntza behar duenean". Eta zer da baliagarria izatea? "Ziklista izan naitekeela demostratzea, emaitza jakin batetik ha-



Lagunak dira, eta adiskidantzako giroan, nor baino nor aritzen dira Alonso eta Iturria urnietarrak. ANDONI URBISTONDO

Bi Mikel; bi urnietar; bi Euskadi; bi amets

Bi izango dira profesional mailako tropelean lehiatuko diren Urnietako txirrindulariak. Ez dira horrelako kasu asko izango Gipuzkoa osoan. Eskualdeko txirrinduzaleentzat aurtengo denboraldiaren jarraipena egiteko arrazoi erantsia izango da

rago. Intentzioa eta ilusioa jar ditzaket, baina hasiberria naiz, ezin da askorik eskatu".

Zerekin utziko lituzke kontent Alonsok Landa eta Azanza, erakutsi merezi duela profesional izatea? "Batez ere beraiek esan-

**HERRI GUTXITAN
AURKI DAITEZKE
PROFESIONAL
MAILAKO BI
TXIRRINDULARI**

dakoak ondo egin ditudala ikusteak. Garaipenak oso zail daude, ezinezkoak ez esate arren, baina hobekuntza txikiak, pauso txikiak asko esan nahi dute hasi berriontzat. Pauso txiki asko eman nahi nituzke". Beldurren ba ote duen galdetuta, ezezkoan: "Ez, erorketa askorik ez izatea, akaso".

Alonsok garaipen asko lortu ditu afizionatuetan, baina badu majo hobetu beharreko gabezia bat: "Ez naiz fondo handiko kirolaria. Gabezia hori gutxitzeko

lanean ari gara dagoeneko, serie gehiagorekin, bolumen handiagorekin. Alegia, gorputza lan luze eta gogorragoetara ohituz. Kostatzen ari zait, baina trukean kategoria berrirako egokitzapena samurtzen badu, gaitzerdi.

**AFARIA DUTE JOKOAN:
BIOK PARTE HARTZEN
DUTEN ITZULI BEREAN,
EA NOR SAILKATZEN
DEN LEHENA**

Sentsazio onak ditut, indartsu ikusten dut nire burua". Iturriak lasai hartzeko aholkua ematen dio: "Ez izan presarik kategoriari neurria hartzeko, baloratu noraino iritsi zaren, ez delako erraza. Askok bidean geratzen dira, eta zu profesionala izango zara". Iturriak Alonsok askok gaintitzen ez duten langa gaintzeko zortetxo hori izan duela dio, eta "horregatik gozatu egin behar du. Urtea azkar pasatzen da, momentu onekin, txarrekin...".

Zertan hobetu behar duen ere garbi esaten dio: "Aurrerapauso bat eman behar du profesional izaten jarraitu nahi badu. Fondo handirik gabeko txirrindularia da, eta profesionalen tropeleko martxeta hori ez baldin badaukazu, jai duzu. Berdin da igotzaile aparta izatea, edo esprinter ona, etapak erabakitzen direnean indarrik ez baldin baduzu jai daukazulako. Nik martxeta hori badaukat, baina irabazi daitekeen dohai bat da. Ni ez naiz esprinterra, eta ez naiz inoiz izango. Hori ezin da aldatu. Baina martxetarik ez baduzu, lana eginez gero, lor dezakezu. Nik inoiz ez diot Alonsori esprintean irabaziko, baina berak nire martxeta erritmoa lor dezake. Behin hori lortuta, 23 urtez azpiko probetan saiatu behar du postu onak lortzen, nik egin nuen bezala". Interes handiz entzun ditu Alonsok Iturriaren hausnarketak.

Osatu, jaiki eta ibili

Abuztuak 15a oso present dago Mikel Iturriaren oroitzapenean. Sasoiz ondo sentitzen da, 150 kilometroko saioak egin da, dagoeneko, baina bere hitzek lau hilabete atzera hartu zuen zartakora bueltatzen dute etengabe: "Mina hartu nuen hanka eta ipurtaldea muskularki deskompentsatua daukat, eta noiz-behinka oinazeak izaten ditut gorputz atal horretan". Azaroan hasi zen bizikleta gainean. Bi hilabete luze daramatza errepedean, baina lanean askoz lehenago hasi zen: igerilekuan, ibiltzen, bizikleta estatikoan, arrabolan... Izterrezurreko haustura lesio serioa da, baita goi mailako kirolarientzat ere.

Ez du urduritasunik pasa bere etorkizunaren inguruan. Erori eta ospitalean zegoenean Odriozolak esan omen zion: 'lasai, datorren urterako osatuko zara'.

"Horrek lasaitasuna eman zidan. Erietxean jaso nuen kontratua, eta etxera bueltatzean sinatu". Bosgarren urtea izanen du profesionaletan. Bi Euskadin, eta beste bi Euskadi-Murias taldean. Bosgarrena ere azken horrekin, baina nabardura garrantzitsu batekin: aurten Kontinental-Profesional mailako taldea izango da Odrizolak gidatzen duena. Alegia, 2. mailakoa, World Tour egutegiko hainbat proba korritzen diren kategoria.

Aldaketa erabatekoa da. Honatx Iturriaren azalpena: "Kontinental mailan zaila da oihartzuna lortzea, Mikel Landa edo Ion Izagirre ez bazara. Horiek sailkapen nagusietan postu onak egiten zituzten, baina beste guztiontzat tropel nagusiko erritmoari euste hutsa nahiko lan izaten da. Ni nahiko ondo moldatu naiz mailara. 23 urtez azpikoekin aritzen nintzenean, posturen bat edo beste lortu nuen, baina 22 urterekin 28. postuan sailkatzeak ez dauka garrantzirik. Kontua da Kontinental mailan lasterketak ez dituztela telebistaz eskaintzen, oihartzun apala dutela, eta emaitzek, ba ezta ere. Gehiago balio du Euskal Herriko afizionatu mailako sei karrera irabaztea, adibidez Mallorcan 5. egitea baino".

Perspektiban Euskal Herriko Itzulia, edo Espainiako Vuelta eduki-tzeak dena aldatzen du: "21 eguneko itzulia da, eta agian lau ihesaldi hartzen dituzu, eta horri esker, aurreko urteko garaipen batzuk baino telebista minutu gehiago lortu. Azkenean hori da gakoa, zure mailota telebistan ikustea, zu telebistan agertzea". Vuelta aipatzen du, baina antzekoa esan daiteke Itzuliaz, Donostiako klasikoaz, Kataluniako Volta, Dauphine Kriteriuma (ofizialki baieztatu gabe, oraindik), Trentino... "Dauphinen, Tourraren atarian, World Tour guztiak daude, eta zu haiekin bazaude, ba lasterketa ona eginez gero ikusi egiten zaituzte. Ate asko ireki ditzake, beste dimentsio bat da".



Negu betean errepedera atera beharra dago, laster lehiari ekiteko. ANDONI URBISTONDO

"BALORATU NORAINO IRITSI ZAREN. EZ DA ERRAZA IZAN. BIDEAN GERATU DIRA ASKO"

ITURRIAK ALONSORI

"WORLD TOURREAN IHESALDIETAN SARTZEN SAIATU BEHAR DUZU"

ALONSOK ITURRIARI

Eta osagai horiekin, ze plan-gintza, ze asmo du Iturriak? "Urtarrila bukaeran hitz egingo dugu, aurkezpen ofizialaren ostean (urtarrila erdialdean egingo dute, Gasteizen). Lesioaren eboluzioa ondo doa, baina pixkat bat lasai hartuko dugu, behin-betiko egutegia erabaki bitartean". Urtarrila bukaeran dagoeneko ondo samar egon beharko lukeela uste du, "duintasunez debutatzeko moduan", Valentziako Itzulia edo Etoile de Besseges-en. Badu, dena den, egutegi polit bat, iltzatura: "Euskal Herriko Itzulia korritu nahi nuke. Eta hala balitz, gauzak lasaixeago hartuko nituzke urtarrila, otsaila eta martxoan. Igual ez daukat berriro Itzulia korritzeko aukera, eta aukera baliatu nahi nuke. Egutegiko bigarren zatian, Espainiako Vuelta". Alonsok eten du Iturriaren jarduna: "Ni aminatzeraz joango naiz. Txirrindularia naiz lanbidez, baino zale sutsua ere bai, eta tzulia ikustera joango naiz, noski".

Lehen, Iturria aritu da Alonsoren kirol zuzendari jardunean. Lanak aldatzeko eskatuta, ausart bota du Alonsok: "World Tour probetan ihesaldietan sartzen saiatu behar du, bere burua erakutsi. Lasterketa gogorretan sufritzeko gaitasuna badaukala erakutsi du, eta horietan lan ona egiten ahalegindu behar luke. Itzuli laburretako sailkapen nagusietan ere ondo ibil daiteke, erakutsi du Asturias edo Burgosen. Parte hartzea oso ona den itzuletan, noski, ba kostako zaio postu on bat lortzea, baina lehiakortasun horri aurre egiteko motibazio bikaina dauka".

Afari bat dute jokoan. Biok parte hartzen duten itzuli berean, sailkapen nagusian nor geratzen den aurrena. Valentzian edo Andaluzian izan liteke, otsailean. Berez ahobero jardun beharko luke Iturriak, gehiago delako, baina lesio larri batetik bueltan zuhur mintzatzen da, Alonsok aurrea har diezaiokelako. Alonsok bezala, apustu gehiago ba ote dauden galdetuta: "Bai, bai. Publikoki esan ezin diren beste apustu batzuk ere badaude herriko jendearekin... irabazten baditut kontatuko ditut!"

Etorkizuneko talde berean?

Biek ala biek Euskadi izena eramango dute soinean, lasterketetan eta entrenamenduetan. Baina talde ezberdinetan. Zer gertatuko da 2019an? Batek daki... Txantxetan erantzuten du Iturriak, afizionatueta jada elkarrekin egon zirela gogoratuz: "Bronka asko botatzen nizkion, beti niretzako lana egitea eskatzen niolako!". Alonsok eszeptikoa da: "Nahiko nuke Fundazioa lehen izan zena bilakatzea berriro ere, euskal selekzioaren halako harrobi bilakatuz. Bi proiektuak elkartuko diren edo ez, ez dakit". Fundazioa indartsu jaio da, baina gerta liteke Kontinental mailan bide laburra egitea, mailaz igotzea hurrengo urtean. Presiorik sentitzen al du, horregatik? "Beno, Euskal Herriaren maila oneko txirrindulari sorta handia dago. Orain niri eman didate aukera, eta horrek indar gramorik geratu arte saiatzera behartzen nau, nahiz eta ikasteko urtea ere baden. Toki gabe geratuko naiz, igual, aukera pasatzen uzten badut, baina hala gertatzen bada, ez da ez saiatzeagatik izango.

Afaria bukatuta, Iturriak ogi-torrafa goxo bat jateko tentaldian eror arazi du Alonsok gaztea: "Horrelako asko jaten badituzu ez zara ezer ibiliko", bota dio Iturriak Alonsori. Azkar erantzun dio gazteak: "Bueno, orain horrelako dozena erdi janda ere irabaziko nizuke...". Odolkiak ordainetan hartuta, etxerako bidea hartu dute biek, zintozintzo. Laster estatu mailako eta mundu zabaleko lasterketei ekingo diete, bakoitza bere bidean ibilbide oparoa osatu nahian.



Frontoiaren ezaugarriak oso bestelakoak dira trinketean. IRURAKO UDALA

Aldunberri eta Loitegi, txapelaren bila

TRINKETEA Eskuz banako finalak igande goizean jokatu dira Irurako trinketean, Urnietako bi ordezkarien parte hartzearekin: Jubenil mailako Aitor Aldunberri eta senior mailako Julen Loitegi

Erredakzioa URNIETA

Goizeko 10:00etan hasiko dira finalak. Aldunberri Azkoitia taldeko aurkaria gaintu behar du txapela irabazi nahi badu. Gauza bera, Loitegiaren kasuan. Bigarren honek billabonatar aurkaria izango du frontoian.

Aitor Aldunberri

Hein handi batean laguntzaile moduan aritu zen Loitegi eskertu zen finalean. Tolosako aurkaria izan zuen finalurrekoan, eta urduritasunak nabarmen kaltetu zuen. 14-20 atzetik zen markagailuan, bere mailatik askoz beherago jokatuz. Loitegi lasaitu zuen, eta haren aholkuei esker konfiantza berreskuratu eta finalurrekoan garaile irten zen (35-27).

Julen Loitegi

Nagusien mailan denboraldiko partida onena egin zuen Astigarragako Oier Gurutzealde aurkaria gaintuz. Ez da, ez, nolanhiko aurkaria. Bera bai-

ta iazko txapelduna, are gehiago, Gurutzealde da azken bi urteetan Loitegi txapelik gabe utzi duen pilotaria. Eskuz bikain, maila ikaragarria erakutsi zuen urnietarrak (40-26).

Eñaut Esnaola

Bi kideek finalean jokatzeko aukera izango badute ere, hiru garren urnietarra oraingoan



Julen Loitegi. UKE

bidean geratu da. Eneko Maiozek nagusitasun handia erakutsi zuen, jarduera honetan hain trebe ez den Eñaut Esnaolaren aurka. Urnietako pilotarien arteko finala pauso bakarrera egon da, baina kirolean azken pauso hori izaten da lortzen zailena. Billabonatarak, oraingoan, garaipen argia lortu zuen (40-13). Gipuzkoako txapeldunen izenak igande honetan jakingo dira. Ea Urnietara iristen diren biak!

Udaberri txapelketa

Gomazko paleta partidak ostegun honetan jokatu dira. Urnietako 1 taldea Astigarragan arituko da, Mundaroren aurka. Urnietako 2 taldea, berriz, Urnietan Zarautz taldearen aurka. Bi partidak iluntzeko 20:00tan hasiko dira.

Gomazko pala motzean, igandean Urnietako bi taldeak elkarren aurka arituko dira. Urnietan bertan, goizeko 11:00tan hasita.

Olatz Odriozola hirugarren estatu mailako txapelketan

ZIKLOKROSA Legazpiko proban, brontzekoa lortuta, pozarren agertu zen Urnietako txirrindularia



Olatz Odriozolak podiuma zapaldu zuen Espainiako txapelketan. RFEF.ES

Erredakzioa URNIETA

Bizikletak.com taldeko korrikariak, urteak aurrera joan ahal, elitean darrai. Legazpin jokatzen estatu mailako txapelketan eskaini zuen maila ikus-tea besterik ez dago. Lesio luzea igaro eta gero, garaipen postuetatik ez da urruntzen. Lasterketa amaituta, federazioari eskainitako adierazpenetan pozarren agertu zen: "Estatu mailako txapelketa izanik, etxean lehiatu dut. Legazpin izango zela jakin nuenetik, parte hartzeko gogo berezia izan dut. Ibilbidea

gogorra izango zela banekien, lokatzaren gaintik bizikleta gainean aritzeko trebezia handia behar baita. Ez naiz fin-fin iritsi, bost hilabete iraun duen lesio larria gaintu baitut, baina uste dut oso lasterketa ona egin dudala eta lortutakoarekin oso pozik nago". Aida Nuño eta Lucia Gonzalez asturiarrekin osatu zuen podiuma. Lehen euskalduna, beraz, urnietarra izan zen.

Asier Arregi

Gizonezkoetan, andoaindarra 18. postuan sailkatu zen.

KARTELDEGIA: SASKIBALOA, ARETO FUTBOLA

SASKIBALOA

SENIOR MAILA

EMAITZAK

Garbana-Zarautz **39-51**

SAILKAPENA

1 Zarautz **24 puntu**

9 Goierri **18 puntu**

10 Garbana **18 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

19:15 Garbana-Mundarro B / Lar, 20

KADETE MAILA

EMAITZAK

Garbana-Take **113-39**

SAILKAPENA

1 Goierri **20 puntu**

2 Garbana **19 puntu**

3 Aloña Mendi **18 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

12:15 Goierri-Garbana / Ig, 21

ARETO FUTBOLA

SENIOR MAILA

EMAITZAK

Euskalduna-Jaixki **6-0**

SAILKAPENA

1 Herrikide **26 puntu**

3 Tolargi **21 puntu**

4 Euskalduna **21 puntu**

5 Idiazabal **20 puntu**

ASTEBURUKO PARTIDA

20:50 Isu Leihoak-Euskalduna / Osti, 19

ANDOAINGO TXAPELKETA

EMAITZAK

Ekhia-Lanbroa **4-4**

Dad Kutxa-Academia GF **7-1**

Centro Extremeño-Olajauna **11-4**

Garbana-Gorostidi **1-3**

Keler-Akerbeltz **7-2**

Ekaitz-Academia London **5-4**

Hogar Extremeño-Pausoka **7-4**

Powerade-Irunberri **4-5**

Mendiz mendi Urnietatik inauteri giroko Leitzara

MENDIZALETASUNA Datorren urtarrilaren 27an urteko lehen mendi irteera antolatu du Zanpatuz elkarteak. Iaz bezala, Leitzako inauteriei bisitaldia egingo diete. Beti ere, irteera eguraldiaren baitan izango da

Aiurri komunitatea
Zanpatuz mendi elkarteak
Urnietara

Zanpatuz mendi elkarteak urteko lehen irteera antolatuko du, Leizta aldera. Zazpi ordu inguruko ibilbidea izango da, maila ertainekoa eta izena eman nahi duenak urtarrilaren 23a baino lehen egin beharko du Xauxar eta Kantoi tabernetan, edota Ikasmin akademian. Irteerak badu berezitasuna, izan ere Leiztan inauteria ospatzen baita. Hasteko eta behin, irteera amaituta, Leitzako kiroldegian dutxa beroa hartzeko aukera izango da 3 euro ordainduta. Leiztan bertan Arakindegia jabetxean bazkaldu eta gero, Urnietara busez itzultzeko bi aukera izango dira, iluntzeko 20:00tan lehena eta beste goizaldean. Bigarren aukera horren alde egiten duenak izena ematerakoan jakinarazi beharko du. Bidaiaren prezioa 15 eurokoa da (bazkideek 10 euro), eta baz-



Jantzi egokiak eta mendi martxarako jan edanak norberaren kontura doaz. ZANPATUZ

kariarena 25 euro. Bi kasuetan izena emandakoan ordaindu behar da.

Motxila, bezperatik
Ohar garrantzitsua: mendizaleek bezperatik motxila uzteko au-

kera izango dute Ikasmin akademian, arratsaldeko 15:30etik 18.30era. Leitzara iristean, bertan jasoko dituzte motxilak.

Hori bai, mendi ibilaldirako jantzi egokiak eta jan-edanak norberak eraman beharko ditu.



On Bosko krosaren edizio berria aurkeztu dute

Datorren otsailaren 18an, igandearekin, On Bosko krosaren laugarren edizioa antolatuko du Salesiar ikasketxeak. Goizeko 11:00etan hasiko da, ikastetxetik bertatik. Aurtengoan, ordea, bi lasterketa izango dira. Lehena, zazpi kilometrokoa, lasterka. Bigarrena, sei

kilometrokoa, Nordic walking parte hartzaileentzat. Dagoeneko izena eman daiteke herrikrosa.eus webgunean eta ikastetxean, 10 euro ordainduta. Antolatzaileek dutxa beroa eta salda ziurtatu dituzte, parte hartzaile guztientzat. Baita sarien zozketa ere.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Urnietara-Oiartzun	1-0
Euskalduna-Lizeoa	5-1

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:30	Sanpedrotarra-Urnietara / Ig, 21
16:30	Orioko-Euskalduna / Lar, 20

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Euskalduna-Mundarro	2-3
---------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:30	Trintxerpe-Euskalduna / Ig, 21
-------	--------------------------------

KOPA, NESKAK

EMAITZAK

Euskalduna-Oiartzun	1-2
---------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDAK

18:00	Allerru-Euskalduna / Lar, 20
-------	------------------------------

JUBENIL MAILA, MUTILAK

IGOERAKO LIGAXKA

EMAITZAK

Allerru A-Urnietara A	2-2
Orioko-Euskalduna A	1-3

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:30	Urnietara A-Orioko / Lar, 20
17:30	Euskalduna A-Beasain / Lar, 20

KOPA

EMAITZAK

Urnietara B-Goierri	3-2
Ordizia-Euskalduna B	1-1

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:30	Euskalduna B-Lazkao / Lar, 20
17:00	Billabona-Urnietara B / Lar, 20

KADETE MAILA, MUTILAK

OHOREZKO MAILA

EMAITZAK

Euskalduna-Añorga	0-1
-------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

10:30	Tolosa-Euskalduna / Lar, 20
-------	-----------------------------

KOPA

EMAITZAK 4. MULTZOA

Lizeoa B-Urnietara	0-2
--------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDAK

11:15	Urnietara-Kostkas B / Ig, 21
-------	------------------------------

EMAITZAK 7. MULTZOA

Euskalduna-Danena B	3-4
---------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDAK

11:00	Intxurre-Euskalduna / Lar, 20
-------	-------------------------------

KADETE MAILA, NESKAK

TXAPELKETARAKO FASEA

ASTEBURUKO PARTIDA

13:00	Urnietara-Mutriku / Lar, 20
-------	-----------------------------

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA, MUTILAK

EMAITZAK	
Urnietara-Egia	30-31
Ormaiztegi-Leizaran	33-28

ASTEBURUKO PARTIDAK

19:15	Legazpi-Urnietara / Lar, 20
12:00	Leizaran-Aloña Mendi / Ig, 21

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Urnietara-Eibar	21-18
Alaia B-Leizaran	28-35

SAILKAPENA

1	Irauli Bosteko	22 puntu
4	Urnietara	12 puntu
6	Leizaran	9 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

20:45	Leizaran-Egia / Osti, 19
-------	--------------------------

JUBENIL MAILA, MUTILAK

7-12. POSTUEN TALDEA

EMAITZAK

Urnietara-Leizaran	23-20
--------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

12:15	Irun-Urnietara / Lar, 20
17:30	Leizaran-Aloña Mendi / Lar, 20

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Eibar-Leizaran	23-22
Egia-Urnietara	23-17

ASTEBURUKO PARTIDA

17:00	Leizaran-Egia / Osti, 19
10:30	Urnietara-Untzilla / Ig, 21

KADETE MAILA, MUTILAK

EMAITZAK

Bergara-Leizaran Horia	24-13
------------------------	-------

AZKEN FASEA

EMAITZAK

Urnietara-Urola	36-31
-----------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

10:00	Bera Bera Urdina-Urnietara / Ig, 21
-------	-------------------------------------

9-16. POSTUEN TALDEA

EMAITZAK

Leizaran-Tekniner	32-30
-------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

16:30	Ordizia-Leizaran / Lar, 20
-------	----------------------------

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Bera Bera Laranja-Leizaran Horia	20-11
Irun A - Urnietara	21-21
Leizaran Urdina- Mundarro	18-18

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00	Leizan Horia-Ereintza / Lar, 20
12:00	Urnietara-Ordizia / Ig, 21
16:00	Izaro-Leizaran Urdina / Lar, 20

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 18

URNIETA Lan poltsa

Udalak Arkitekto Teknikoen lan poltsa sortzeko aukeraketa prozesua jarri du martxan. Izena emateko epea otsailaren 8an amaituko da.

Bertan, bulego ordutegia.

ANDOAIN Ipuin kontaketa

Bidaideren eskutik Maialen Zubeldiaren ipuin kontaketa, 17:30ean 3-5 urte bitartekoentzat eta 18:00etan 6-8 urte bitartekoentzat.

Bastero, 17:30.

ANDOAIN Erakusketa

Naiara Delgado Perez herriko artistaren erakusketa zabalik dago.

Bastero, otsailaren 17ra arte.

OSTIRALA 19

URNIETA Ipuin kontaketa saioa

Marisa taberneroren eskutik.

Lekaio, 17:30.

LARUNBATA 20

ANDOAIN Aisialdia

Izartxok arratsalde pasa antolatatu du: "Izartxo eroetxea".

La Salle, 18:30-22:30.

ASTEARTEA 23

ANDOAIN Hitzaldia

Hitzartu egitasmoa aurkezteko hitzaldia, GuraSOSen ekimena azaltzeko. Ipar Haizea plataformak antolatuta.

Urigain, 19:00.

ASTEAZKENA 24

ANDOAIN Aurkezpena

Udalak hondakinak biltzeko sistema piloto modukoa abiatuko du Sorabillan, Olagainen eta Alejandro Calonjen. Egitasmo berria azaltzeko lehen bilera Sorabillan egingo dute. Datozen egunetan beste bi auzuneetan.

Auzo elkarte, 19:00.



ARGAZKILARIAXXXX

URNIETA Eñaut Elorrietaren emanaldia Super H taldearen eskutik

Kantari ezagunak bakarkako ibilbidea lantzen jarraitzen du, Euskal Herri osoko agertokietan. Sarrerak, agortu arte, Sarobeko leihatilan salgai daude ohiko ordutegian.

Otsailak 17, larunbata. Sarobe, 19:00.

OSTEGUNA 25

ANDOAIN Plenoa

Udalaren osoko ohiko batzaraldia.

Udaletxea, 19:00.

ANDOAIN Arretarako bulegoa

Oroituz, Andoainen eta Udalak Frankismoko biktimen arretarako bulegoa zabalduko dute.

Bastero, 17:00-19:30.

OSTIRALA 26

ANDOAIN Musika

Elliot Murphy & Olivier Durand musikariek "Prodigal Son" disko berria aurkeztuko dute.

Bastero 21:30.

LARUNBATA 27

ANDOAIN Puska biltzea

Axerien Puska biltzea, aurtengoan Sorabilla auzoan barrena. Izen-ematea zabalik dago: Urrats, Olajauna, Irunberri eta Lanbroa.

Informazio gehiago: andoaingoaxeridantza@gmail.com
Irunberri, 08:00.

ESKUALDEA Mendi martxa

Erraustegiko goi-tentsioko linearen aurka mendi martxa. Irteerak Andoaingo Goikoplazatik 10:00etan eta 10:30ean Urnietako Zaldundegitik.

Azkorte, 11:30.

ANDOAIN Irteera

Mintzalagunen irteera Alkizako Urmara museora. Hamaiketako eskainiko dute bertan. Irteeraren prezioa: 6 euro.

Izen ematea: 943 591 704.

Urmara, 10:00.

ANDOAIN Pailazoak

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek "Boroblean" ikuskizun berriena eskainiko dute. Bi saio eskainiko dituzte. Sarrera batzuk salgai daude oraindik.

Bastero, 16:30; 18:30.


IGANDEA 28

URNIETA Antzezlan

"Kolorez kolore" izeneko antzezlan 3 eta 6 urte bitarteko umeentzat. Kveta Pacovsca ilustratzailearen lan plastikoan oinarrituta.

Sarobe, 17:30.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****El gran showman**

Larunbata, 20:
19:30, 22:00.
Igandea, 21:
19:30.
Astelehena, 22:
19:30, 22:00.


Ferdinand

Larunbata, 20:
17:00.
Igandea, 21:
17:00.
Wonder wheel
Igandea, 28:
19:30.
Astelehena, 29:
19:30, 22:00.

URNIETA**SAROBE****ORM en el reino de las nieves**

Igandea, 21:
17:00.
Ovejas y lobos
Haur emanaldia
Igandea, 4: 17:00.

SINOPSIAK

**Ferdinand**

Zuz.: Carlos Saldanha. **Herr.:** Estatu Batuak (2017). **Iraupena:** 109 minutu.

Zezen handia eta sentibera

Ferdinand-ek ez du gogoko zezenketetan parte hartzea. Handia izan arren, lasaia da.

Gizon batzuk zezen handi eta azkar baten bila etorriko dira, eta Ferdinand aukeratu dute.

El gran showman

Zuz.: Michael Gracey. **Herr.:** Estatu Batuak (2017). **Aktoreak:** Hugh Jackman, Michelle Williams... **Iraupena:** 105 minutu.

Zirku ikuskizun handia

Ikuskizuna negozio bihurtu zeneko hasiera, eta Phineas Taylor Barnum zirku-interpretetako eta enpresari amerikarraren bizitza ditu ardatz musikalak. Langabezia geratzearen

ondorioz, proiektu berri batean murgiltzen da: zirku ikuskizun handia martxan jartzea. Hau da bere lema: Zerbait berria egiteko, zerbait konbentzionala egin behar da.

Euskara ikasteko aukera

Urnietako

Urnietako AEK euskaltegia zabalik da matrikulatzeko epea. Prestaketak batetik, HABE azterketan, eta bestetik, euskara praktikatzeko eta hobetzeko mintzapraktika aukeran. Urnietako AEK, kultur etxea. Errekalde kalea, 1 tarteko oina. Telf.: 662 338 747. urnieta@aek.eus

Andoain

Euskalduntze maila guztiak eskaintzen dira. 1go, 2. eta 3. mailako hizkuntza eskakizunak prestatzeko klaseak, EGAKO azterketa prestatzeaz gain. Ordutegi zabala. Ikaslearen beharretara egokitutako autoikaskuntza zerbitzua. Plazaola 2, behea. Telf.: 943 59 17 04. andoain@aek.eus

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Olaia
Gure prexioak urte mordoak beteko ditu eta bere eguna ahalik eta zorionsuen ospa dezan opa diogu STK taldekoek. Bejondeizula Olaia!!



ANDOAIN Ekhi Azurmedi Marcos
14 urte irripar egiten, 14 urte alaitasuna kutsatzen gure txikiak dagoeneko 14 urte! Segi horrela! zure izenari ohore egiten. Maite zaitugu.



URNIETA Aritz
Aritz, zorionak! Jadanik sei urte bete dituzu. Ondo pasa eguna familia guztiarekin.



ANDOAIN Axel
Gure kuttunak 7 urte beteko ditu urtarilaren 24ean. Egund bat lehenago, aitona Antoniok ere urteak beteko ditu, eta hilaren 30ean osaba Ekaitzek. Muxuak denontzat!!



ANDOAIN Uxue Miguez Otaegi
Otsailaren 4ean Uxuek 3 urte beteko ditu. Ondo pasa! Askok maite zaitugu! Etxekoak

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus
Sar zaituz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze eguner bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Arantzibia 4-5, behea
Etor zaituz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

MERKATU TXIKIA

Paseoko **bizikleta** beltza salgai, saski eta guzti. 125 euro. Deitu: 610 953 258.

Baserriko **intxaurrek** salgai. 671 316 863. Lurdes.

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko** klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza praktikarako, enpresatarako klaseak. 665 719 827 / 943 008 059

20 urteko ikaste euskalduna ordu batzuk **lan egiteko prest**. 634 441 353

Etxean ogia egiteko labe aproposa (Moulinex). 2 urteko garan-

PARTE HARTZEKO:

Intereseko iragarkia argitaratu nahi izanez gero bidali mezu bat diseinua@aiurri.eus helbidera edota whatsapppez: 619 163 537

tia eta aseguru duena). Tel.: 620 55 49 37. Amasa-Villabona

Furgoneta salgai. 6000 euro. Prezioa ez da negoziagarria. Ohe gabe salduko da. Interesatuak deitu 685 728 024. (Ixiar)

Mahaian esertzeko eta neurri ezberdinetan jar daitekeen **umeen trona** salgai. 690 21 89 58

Hemengo **hurra** erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Soldatzaile eta galdaragileak BILATZEN DIRA

- Tamaina handiko pieza konplexuak muntatzen esperientziadunak.
- Planoch inakurketan adituak.
- Aitzain Hertsolagaitzetan MIG eta TIG-ekin jardunak.
- Izaera egokia eta etengabe ikasteko jarrera irekia dutenak.

ESKAINTZEN DUGUNA

- Etengabe hazten eta Europan lidana den galdaragintza baten portaide izateak.
- Zientzia, energia eta espazio bezalako alorretan proiektu mundialak garatzeko aukera.
- Lan baldintza eta soldata erakargarriak.
- Lan giro polita.

Informazio gehiagorako: www.cadinox.com/lan

cadinox
since 1988

OROIGARRIA

Hiazinto Fernandorena Setien

2017ko urtarilaren 7an hil zen, 86 urte zituela.

Aiurri astekariaren ibilbidean, lehen urratsetan eta ondorengo urteetan laguntzaile prestua, iritzigilea,

AIURRIKO LANTALDEA
Andoain, 2018ko urtarilak 18

OROIGARRIA

Hiazinto Fernandorena Setien

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko bazkide aitzindaria

2017ko urtarilaren 7an hil zen, 86 urte zituela.

Askok zuri esker bizi du euskara, euskal izatearen goizeko izarra; bidegile trebea, ekintzaile azkarra, aurrerabidearen langile suharra. Eskuz, buruz, bihotzez zabala izan zara, Euskalgintza osoaren ongile goiztiarra!

Urrietako Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra; Manuel Larramendi Kultur Bazkuna
Urnieta, 2018ko urtarilak 18

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 €/ Aiurriko harpidedunentzako 90 €
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 €/ Aiurriko harpidedunentzako 90 €

Eskelak Aiurriin: 90 euro



Aldapan gora

Gaua zen, urtarrilaren 7a. Erroitz kaletik gora Urigain aldera oinez nindoan, bezperako elurtea gogoan hartu nuenean. La Salle ikastetxearen atzealdean eta Udaltzaingora igotzeko aldapatxo horretan hainbesteko arazo sor zitezkeela pentsatzea harrigarri egiten zitzaidan. Eta hori gidarien larritasunen lekuko zuzena izan nintzela: ibilgailua behar bezala maneiatzeko ezintasuna, martxan jarri eta lehen metroak egiteko komeriak, bihurgunea hartzeko estuasunak...

Halako anabasa aldapatxo horretan? Malda dago, baina ez hain malkartsua.

Behobia-Donostiarekin parekatu nuen, ondoren. Lasterketa egin duten korrikalari askok konparazioa ondo ulertuko dute.

Hamaseigarrenean aidanez, lasterkariak Mirakruz gainarekin topo egiten du. Une horretan pareta hutsa da askorentzat. Eta gauzak zer diren, lasterketa eguna ez den beste batean bertatik igaro eta 'halako estuasuna aldapatxo horretan?' izan ohi dela pentsamendu orokorra.

Batean elurrak, bestean nekeak, kanpo faktoreek erraza dena zail bilakatzen dute. Lezioa dena kontrolpean dugula uste dugun gizakiontzat. Zaurgarritasuna? Horixe bera da.

AZKENA



Patxi Txapartegi eta Agurtzane Garmendia urnietarrak. ANDONI URBISTONDO

Altsasuarren laguntza ez dute sekula ahaztuko

Patxi Txapartegi eta Agurtzane Garmendia urnietarrek sei ordu egin zituzten harrapatuta Etzegaraten, urtarrilaren 5eko elurte sonatuan- Altsasura itzuli eta bertako herritarrek laguntza ikaragarria eman izana eskertu nahi izan dute

Andoni Urbistondo URNIETA

Bizipen asko ezagututakoak dira, dagoeneko. Benidorm-en pilotutakoak dira horietako batzuk, Mediterraneo aldean pasatzen baitituzte opor egun asko. Errege Egun biharamunek itzulera, ordea, ez dute berehalakoan ahaztuko. Iruñeraino arazorik gabe etorri ziren, hariak eta informazio paneletan

elurragatik A-15a elurragatik itxita zegoela ikusi zuten arte. A-10 eta A-1 erabiltzeko oharra luzatu zieten. "Elurra ari zuen Iruñetik aurrera, baita Altsasun ere, baina errepidea irekita zegoen. Bat-batean geldirik geratu ginen, Altsasu pasa eta kilometro pare batera, eta halaxe sei ordu igaro ziren". Mantak bazituzten autoan, eta etzan-

da jarri ziren. Erreskate taldea gauerdian hurbildu eta Zegamako bidegurutzean buelta hartuta, Altsasura joaten lagundu zieten. "Herrira iritsi eta gazte mordoa zegoen laguntza emateko prest". Umeei eta adineko jendeari eman zieten lehenitasuna. Pentsa, 1.400 lagun geratu ziren errepidean, ez atzera, ez aurrera. Herriko frontoi-

ra lehenik, kiroldegira joan ziren ondoren. Bat-batean, bozgoragailuetatik ostatueta lekua bazegoela entzun zuten. "Oinetako txar batzurekin genbiltzan. Pentsa, aurreko egunean 20 gradura geunden Benidorm-en".

Jana, edari beroa eta ohea eman zieten. Agurtzane atsedean hartu ahal izan zuen. Patxi ez: "Ezin nuen lo egin, atarian batekin eta bestearekin egon nintzen hizketan. Ikaragarria izan zen altsasuarrak laguntza emateko nola antolatu ziren: janaria banatzeko katea egin, hamakak jarri, jendea atenditu, ogitarte-koak eta gosaria prestatu...". Eguna argitu baino lehenago, zerrenda bat jarri zuten, autoaren matrikularen baitan, ilaran utzitako autora bueltatzeko ze autotan joan behar zuten jakiteko. "Bestelakoan sekulako kaosa sortuko zen". Goizeko 08:00retan A-15a libratu eta Patxi eta Agurtzane onik iritsi ziren Urnietara.

Eskertza mezua

"Ez naiz ondo moldatzen idazten-eta, baina mezu hau helaraziko bazenu, eskertuko nuke", dio Agurtzane, malkotan ia-ia: "Hainbeste jende, zuri laguntzen, ezagutzen ez zaituenean... bizitzako oroitzapen politenetakoa izango da niretzat. Milesker bihotz-bihotzez Altsasuk jende guztiari". Patxi xehetasun polit bat dakar gogora: "Atzerriko jende asko zegoen: frantziarrak, magrebiar jendea, portugaldarrak... erdaraz zeozte bazekien frantziar batek honakoa esan zidan: 'horregatik maite duzue hainbeste errugbia Euskal Herrian, laguntasuna eta elkartasuna ardatz duen kirola delako'".



AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Datorren Aiurri astekarian: Jokin Lizeaga

“Urte berriari sei-zortzi hilabete on eskatu dizkiot, Zegama-Aizkorri eta Europako Kopan aurrean ibiltzeko”